Trikitilarien Txapelketa Nagusian soinu txikia gazteen eskuetan

Toperaino beteko da berriz Donostiako Belodromoa Trikitilarien Txapelketa Nagusi berria dela eta. Hamaseigarren edizio honetan ez dute parte hartu azkeneko txapelketako hiru bikote puntakoek, Tapia eta Leturia, Martin eta Imanol, eta Junkera eta Motrikuk. Baina hala ere, hiru kanporaketetan hogeitahiru bikote biltzearekin, marka berri bat ezartzea lortu da lehiakideen kopuruari dagokionean. Horrekin batera, inoiz baino handiagoa izan da trikitilari gazte eta aurpegi berrien presentzia. Segidako orrialdeetan txapelketaren historia, epaimahaikideen erizpideak eta maiatzaren 5eko finalerako pronostikoak jaso ditugu, trikiti eskola ugarien gaur egungo egoerari errepasoa ematearekin batera.

Josu Landa
Gorka Arrese
Joxi Goikoetxea

Baserri zokotik Anoetako Belodromora, Txapelketa eboluzioaren adierazgarri

Hogei urte txapelaren atzetik

Txapelketekin batera jaso izan du trikitixak egun daukan begirunea. Hiritarren mesprezua eta trikitilarien beraien lotsatik, mementuko errekonozimendura iritsi da, Txapelketa Nagusiak korritu dituen hogeitaka urteotan.

AURTENGOA hamaseigarrena omen da. Trikitilarien Elkarteak emandako datuen arabera, 1968 eta 1969an ere izan zen txapelketarik, nahiz eta txapeldunen izenik ez gogoratu. Hala ere, Basarrik 1972ko kronikan aipatzen du: *«irugarrena da aurtengoarekin»*. Beraz, pentsatzekoa da aurreneko txapelketa 1970ekoa izan zela, Sakabi eta Egañazpik irabazitakoa, alegia. Horren arabera, aurtengoak XIVa behar luke.

Donostiako CATena (Kultur eta Turismo Ekintzetxea) da, trikitixa baserri girotik atera eta kaleartera eramatearen meritua, neurri handi batean. 1966-69 urte bitartean, urtero trikitilariak eramaten zituen Donostiako Euskal Jaietara. 1970eko irailaren 13an, Euskal Jaien barruan beti ere, Lehen Txapelketa izan zen. 1975era arte, urtero egingo zen; handik aurrera bi urtean behin.

Gorantz eginez etengabe

Txapelketaz aparte ez zegoen beste antzeko ezer garai hartan, ezta jaialdirik ere. Ezkontzetan edo erromerietan baino ez zen trikitixa jotzen. 1977an egin zen aurreneko saioa jaialdi baten barruan trikitilariak sartzeko, kantariekin batera. Laja eta Iturbide orduko txapeldunen erantzuna, *«baina nola aterako gara besten ondoan? Barre egingo digute, txistua joko digute!»* izan zen. Bigarren mailako zerbait bezala kontsideratzen zen, baserritarren kontua bezala. Eta trikitilariak berak, akonplexatuta.

Hiru etapa berez daitezke Txapelketaren historian: hasierako urteak (1970-73), Lajaren garaia (1974-82), eta urrezko aroa (1985-88).

Hasierako urteetako emaitzarik aipagarriena trikitilariei lotsa galdu eraztea

Epelde eta Egurrola, txapelketa Donostiako Trinitate Plazan jokatzen zenean.

Fasio eta Maurizia, 1982ko txapelketan, azkenekoz parte hartu zutenean.

izan zen. 1974ean aro berri bati ematen zaio hasiera nolabait, Lajak aurreneko aldiz irabazten duenean, Iturbiderekin batera. Handik aurrera, beste lau alditan izango da txapelduna, azkeneko bietan panderojole Landakanda izanik.

Tartean, Martin ere ageri da eta 1979an eman zen historiako berdinketa bakarra: bi bikote (Martin-Egañazpi eta Laja-Landakanda) puntuaketa berdinaz dira irabazle. Hurrengo urtean errebantxa jokatu zen, eta Martin-Egañazpi izan ziren irabazle.

Txapelketa bezala 1979an jaso zuen aurreneko bultzada handia: Trinitate Plaza utzi eta Anoetako Pilotalekuan jokatuko da finala (1977tik aurrera hasi zen kanporaketa bidez egiten).

1982tik 1985era nolabaiteko parentesia dago. Esteban Larrañagak esan digunez, *«alde batetik gu nekatuta ginen, eta trikitilariek berek ez zioten interes handirik ikusten, Lajak eta, beren etapa bete zutela eta gainera oso gaizki pasatzen zutela esan zuten. Gazteak bazetozen, baina oraindik oso gaztetxoak ziren».*

Jendetzaren arrakasta

Txapelketa 1985an berriro hasi zen, baita indar handiz hasi ere. Jende aldetik orduan eman zen aurrerapauso handiena, Miren eta Iturbidek irabazi zutenean. Anoetako pilotalekuan laurehun bat pertsona sartu ezinean gelditu ziren. Hurrenean Belodromora joan beharra erabaki zuten.

Txapelketaren historia

Urtea	Txapeldunak	Bigarrenak
1970	Sakabi-Egañazpi	
1971	Laja-Zabale	Eleuterio Tapia-Juan
1972	Epelde anaiak	Epelde zaharra-Egurrola
1973	———	———
1974	Laja-Iturbide	Tomas-Kepa Arrizabalaga
1975	Laja-Iturbide	Epelde anaiak
1977	Laja-Iturbide	Egurrola anaiak
1979	Martin-Egañazpi Laja-Landakanda	
1980	Martin-Egañazpi	Laja-Landakanda
1982	Laja-Landakanda	Epelde-Iturbide
1985	Miren-Iturbide	Azkonobieta-Imanol
1986	Joseba Tapia-Leturia	Kepa Junkera-Motriko
1988	Joseba Tapia-Leturia	Martin-Imanol

Hurrengo urtetik aurrera arrakasta izugarria izan du trikitixak. Jendetza aldetik eta gazteen parte hartze aldetik, 86ko txapelketak bultzada handia eman zion. Seguru aski orain arteko pisuzkoena. Aurretik hitz egin zen batekin eta bestearekin, nolabaiteko kontsentsua aurkitu arte. Urte hartan, baita 1988an ere, Josepa Tapia eta Leturia izan ziren txapeldunak.

Azkeneko Txapelketa, 1988koa, orain arteko gatazkatsuena izan zen. Trikitizale asko asaldatu egin zen, zenbait pieza ez zirela trikitixa eta. Gerora etorri zen Tapia eta Junkeraren prentsaurrea. Tradizionalak eta berrizaleen arteko eztabaida gori ibili da harez gero.

Tartean Elkartea martxan jarri da, eta bere babespean antolatu da aurtengoa, nahiz eta antolatzailea bera denik ezin esan. Elkartearen aukera oso garbia izan da: dantza tradizionalerako behar duela, ohizko erritmo eta ideiak gordeta. Batetik, aukera hori egin arte, eta bestetik Tapia, Junkera, Martin eta abar gabe Elkartea txapelketa antolatzeko gai zela sinetsi arte, hiru urte joan dira. Gazteagoen garaia da.

Aurtengo berritasuna derrigorrez jo beharreko pieza izango da, Imuntzok eta Epelarrek konposatu eta Euskadi Irratiko lehiaketa irabazi zuen fandangoa, hain zuzen ere. ■

Aurrez-aurre, zenbakien bitartez nahiz solfeoz erakusten da soinu txikia

Gero eta gazteagoak eskoletan

Hirurogei trikiti eskola inguru izango dira Euskal Herrian gaur egun. Urteek aurrera egiten duten ahala, gazteen belaunaldi berriak sortzen ari dira, bai ikasle bai irakasleei dagokienean. Eta hori txapelketetan nabari da.

GERRA ostean Razinto Rivas 'Elgeta'ren bitartez ikasi zuten Sakabi, Epelde, Epelarre, Tapia, Laja eta Zialtzetak. Tapiaren ikasle izan ziren gero Martin, Astiazaran eta Joseba Tapia. Eta jarraian hazi zaizkio adarrak arbolari, Martinen akademiak ireki ondoren.

Usadioz Gipuzkoa izan baldin bada ere trikiti soinuaren eremu nagusia, azken urteotan beste euskal herrietara ere zabaltzen ari da, piskanaka sortu diren eskolei esker. Gaur egun, bataz beste, eskolen %65 Gipuzkoan dago, %15 Bizkaian, %10 Nafarroan eta %6 Araban. Iparraldean Denise Olhagaraik ere ekin dio lan honi.

Erromerietan eta trikiti txapelketetan gero eta belaunaldi gazteagoak ageri dira plazara. Horren lekuko da neurri batean aurtengo Trikitilari Txapelketa Nagusia ere. Eta bestalde, erreparatu besterik ez dago, nola irakasle bihurtu diren orain gutxi arte ikasle zirenak.

Martin da eskoletan haur gehien duen irakaslea.

Martinek hamar eskola

Duela zortzi urte zabaldu zuen Martinek bere lehen akademia Billabonan. Harrez geroztik beste bederatzi eskola gehiago baditu irakasle ezberdinekin. Martin da beraz, ikasle gehien duena eta izan duena. *«Billabonan bakarrik ehun eta herrogeitamar ikasle inguru ditugu. Irakasle batek hiru edo lauko taldearekin aritzen da, astean ordu betez»*.

Soinuko botoi bakoitzari zenbaki bat egokituta irakasten diete trikitia hasi berriei. Ondoren aurrez-aurreko saioak egiten dira, ikasleak irakaslearen mugimenduei begiratuta. *«Solfeo bitartez ere hasi gara, eta orain akademian lau*

gai erakusten ditugu trikitiaz gainera: solfeoa, panderoa, dantza eta kantua».

Gazteenak zazpi urtekin hasten dira soinua ikasten, *«baina gutxienez hederatzi izatea komeni izaten da».*

Gasteizen eredu berezia

Oskar Martinez de Gereñuk eta enparauek Gasteizen duten eskola da agian Euskal Herriko bereziena, ikasketak dohainik bait dira, 'eskola publikoa' izateko izpirituarekin. Orain dela bost urte ekin zioten, eta aurten laurogeitabost ikasle dituzte dagoeneko.

«Nere ustez gaur egungo eskolak ez dira eskolak, akademia pribatuak baizik» adierazi digu Oskar Martinez de Gereñuk. *«Gure filosofia ezberdina da, ez bait dugu dirua irabazteko irakasten, hau ez da negozio bat».* Eskolaren funtzionamendua asanblea modukoa da, egitura batzorde ezberdinek osatzen dutela. Solfeozko musika ikasketei garrantzia berezia ematen diote eta zenbaki bidezko metodoa gaitzetsi. *«Partitura soilez ikastea arriskutsua da, ez bait da trikitixaren mamia bizitzen. Horregatik aurrez-aurre erakusten dugu lehenik eta partituraren laguntzaz gero, irakurtzen ere ikasteko. Joera hau nagusitzen ez bada, ikasleak beti irakaslearen menpe izango dira. Eta irakasleari exijitu egin behar zaio ikasleak bere kasako etorkizuna izan dezan. Eskolatik trikitilari 'profesionalak' ateratzea da gure helburua, piezak bakarrik ikasteko edo pieza berriak sortzeko gai izango diren trikitilariak».*

Martinez de Gereñurentzat premiazko da eskola ezberdinen arteko normalizazio egoera batera iristea, eredu pedagogikoari dagokionean behintzat. Horretarako gipuzkoarrekin harremanetan jartzen hasia da, Joseba Tapiarekin kasu. ■

TXAPELKETAKO AURPEGIAK

IMUNTZO

Aurtengo txapelketa nagusian Beloki zaldibiarra izan du panderoan. Bikote honek laister kaleratuko den disko bat grabaturik dauka. Imuntzok bestalde, Epelarre bere lehen panderojolearekin grabatu zuen beste disko bat dauka kalean. Aurtengo txapelketan Epelarre eta biek sorturiko fandagoa pieza behartua izango da. Azkeneko txapelketa nagusian laugarren postua eskuratu zuen.

LAURA APEZTEGIA



Txapelketa nagusian Billabonako Agustinekin aritu da. Laura Apeztegia Lesakako neska honek Martinekin ikasi zuen soinua jotzen eta zazpi urte daramatza trikitixa munduan. 1988ko txapelketa nagusian Jokin izan zuen panderoan eta seigarrenak gelditu ziren.

ZABALE ANAIAK

Xabier eta Ibon Azkoitiarrak orain dela bederatzi urte hasi ziren bikote bezala Zabale anaiak izenaz. Xabierrek Epelarrekin ikasi zuen soinua jotzen eta Ibonek panderoa bere aitarekin. Bikote bezala hiru txapelketa nagusitan hartu dute parte eta azkenekoan bostgarren postua eskuratu zuten.

Jokin: «Panderoaren lana ez dute asko baloratzen»

JOKIN paderojole andoaindarrak Azkonobieta soinujole oriotarrarekin hartu du parte trikitilari txapelketan. Jokin, trikitilari gaztea da, laister beteko ditu hogei urte, eta orain dela bederatzi hartu zuen panderoa lehenengo aldiz. Badira bi urte Jokinek Azkonobietarekin bikote osatzen duela eta erromerietan kitarra jotzen du baita ere.

Nahiz eta txapelketetan beti ahalik eta lan onena egiten saiatu, Jokinek nahiago du erromerietako giroa. *«Txapelketak ongi daude, beti ere aproposak dira izen piska bat hartzeko. Hauetara joaten garenean saiatzen gara lan ona egiten, baina atzera samar gelditzen bagara ere ez zaigu gehiegi ajola. Batzuk txapelketan ondo ibiltzen dira eta gero erromerieta-ra ez dira azaltzen. Guk ordea, nahiago dugu erromeri, bazkari, ezkontza, edo antzeko edozein jaialdi ondo prestatu».*

Bikoteetan, normalki, protagonismoa soinujoleak izaten du. Askotan bere izena bakarrik aipatzen da. *«Kontua, txapelketatik etorri da. Txapelketetan digitazioari begiratzen zaio asko. Nahiz eta kantari onak egon soinujolearen izena aipatzen da beti eta gu hor gelditzen gara, piska bat aparte. Panderoaren lanaez dute asko baloratzen. Soinua nola jotzen den gehiago edukitzen dute kontutan».*

Hala ere, erromerietan, biek garrantzi berdina izaten dute. Panderojolea izaten bait da, errítmoa jarri eta ia beti abesteaz gain, giroa alaitzen duena. ■

Epaimahiak interpretazioa izango du erizpide nagusi

JOXE MARI Iriondo zaldibartarra eta Fernando Aranzabal eta Peli Aranzabal eibartarrak izan dira aurtengo txapelketako hiru kanporaketetan epaimahikide. Finalean laugarren bat ere izango da: Manu Iztueta bergararra.

Joxe Mari Iriondo beteranoa da lan honetan, Zaldibarko Trikitilari Gazteen Txapelkeketatik. Gainera, Txapelketa Nagusi guztietan izan da 1980kotik hona, eta gertutik ezagutzen ditu parte hartzaileak. «*Lau edo bost bikote alde batera utzita, aurtengo beste lehiakide guztiak aspalditik ezagutzen ditut Zaldibarko txapelketetatik*» aipatu digu.

Piezen interpretazioaren nolakoa izango da erizpide garrantziatsuena. «*Nota askoko piezak ongi daude, baita pieza berriak sortzea ere, baina ez daitezela mami gutxikoak izan. Lehengo erako trikitixa defendatzen ez badugu, berezko izpiritua galdu egingo da. Berrizaletasun bapatekoak beldurra ematen dit*».

Pieza bakoitza entzun ahala puntuazioa eman beharrak, trikitilarien urduritasunean eragiten du. «*Baina ez dago beste erremediorik puntuazioa argi agertzeko. Bapatean erabakia eman behar horretan, ez pentsa ni ere beti gustora geratzen naizenik emandako puntuazioarekin*». ■

Joxe Mari Iriondo erdian, Aranzabal eibartarrek lagundua.

EUSKADIKO
XVI
TRIKITILARIEN TXAPELKETA
1991
FINALA
DONOSTIAN
(Belodromoan), Maiatzaren 5ean, arratsaldeko 6etan

DONOSTIAKO KULTUR ETA TURISMO EKINTZETXEAK (C. A. T.) ANTOLATUTA

Lauri Moisen

Tresnak:
- Pianoak eta organoak
- Akordeoiak
- Gitarrak
- Diskoak-kasetak
- Konpak-diskoa
- Goi fideltasuna

K/ Abasolo, 1 — Durango
Tel.: 681 18 08 Fax.: 620 17 68

Alogera:
- Soinu ekipoak
- Alanbrerik gabeko mikrofonoak
- Argitasunak
- Taldeentzako ekipoak
- Sekzio profesionala
- Talde eta diskoteketako zerbitzu teknikoa

Talde eta diskoteketako, soinu eta argitasun erakusketa. Zerbitzu teknikoa

Durango-Elorrio bidean — Artia Industrialdea
Tel.: 658 34 57 — Atxondo (Bizkaia)

Finalerako pronostikoak

Iñaki Malbadi	Imuntzo-Beloki Zabala anaiak
Luis Astiazaran	Imuntzo-Beloki Roberto Etxeberria-Kepa Arrizabalaga Azkonobieta-Jokin
Joakin Epelarre	Imuntzo-Beloki Zabale anaiak Aitor Epelde-Ritxar Cuevas
Tomas Epelde	Imuntzo-Beloki Laura Apeztegia-Agustin
«Imanol» Urkizu	Imuntzo-Beloki Zabale anaiak Azkonobieta-Jokin
Laja	Laura Apeztegia-Agustin Aitor Epelde-Ritxar Cuevas Agurtzane Elustondo-Andoni Larrañaga
Leturia	Imuntzo-Beloki Aitor Epelde-Ritxar Cuevas Laura Apeztegia-Agustin
Joseba Tapia	Imuntzo-Beloki Aitor Epelde-Ritxar Cuevas Laura Apeztegia-Agustin
Juan Tapia	Imuntzo-Beloki Zabale anaiak Laura Apeztegia-Agustin Aitor Epelde-Ritxar Cuevas Saizar anaiak
Juanito Maltzeta	Imuntzo-Beloki
Xapre	Imuntzo-Beloki Elorza anaiak
Joxe Alkain	Imuntzo-Beloki Zabale anaiak Aitor Epelde-Ritxar Cuevas Elorza anaiak
Laxaro Azkune	Imuntzo-Beloki Zabale anaiak Azkonobieta-Jokin
Kepa Pz. Urraza	Imuntzo-Beloki

Musikarako garaia da
HURBILDU ZAITEZ

MUSIKARTE BENGOA

ALOGERA - SALMENTA

SOINU KONTUETAN JAKITUN GARA

Pianoak	**Aldibereko itzulpenak**
Organoak	**Partiturak**
Akordeoiak	**Diskak**
Tresnak	**Kamarak**
Soinu profesionala	**HI-FI**
Grabaketarako estudioa	**TV**

San Martin kalea — 20005 DONOSTIA
Tel.: 42 49 29, 42 74 62, 42 90 87/8

PIKABEA
SONORITATE OROKORREAN

- Etxeetako hari musikala edo integrala
- Jaialdiak (bertsolariak, trikitixa...)
- Mitinak... eta abar

ERRIBERANE, 5-3 F
TEL. 49 01 74 20180 - **OIARTZUN**